

2025EKO UZTAILAREN 24AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO BATZARRALDIAREN AKTA.

LEKUA: Beasaingo Udaletxea

ARETOA: Batzar Aretoa

EGUNA: Hogeita laua

HILABETEA: Uztaila.

URTEA: Bi mila eta hogeita bost.

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko seietan.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa.

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

UDALBURUA: LEIRE ARTOLA UGALDE

BILDUAK:

EAJ-PNV

- ADUR UGARTEMENDIA LEUNDA
- AINHOA ARRESE ARRATIBEL
- MARIOLA PASCUAL PAREDES
- EDORTA DIAZ DEL RIO
- MARIA ELENA RUIZ ZABALA
- MICHEL VENTUREIRA IRIZAR
- AITOR ALDASORO ITURBE

BEASAINGO EH BILDU

- HASIER AGIRRE ELKOROBerezibar
- NEREA MANZISIDOR MENDIZABAL
- YOLANDA HERNANDEZ RODRIGUEZ
- IKER URTEAGA REBOLLAR
- AITOR URDANGARIN IRASTORZA

SOCIALISTAS VASCOS-EUSKAL SOZIALISTAK

- EVA ALVAREZ ATANES
- ANGEL REDONDO FERNANDEZ

ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE

- WESLEY ARITZ CORSITTO AGIRRE

ETORRI GABEA: OLATZ ARRESE IMAZ

IDAZKARIA: ITZIAR AROZTEGUI APAOLAZA

Bileran ere parte hartu dute Lurdes Alegria Lasa Kontuhartzaileak eta Lurdes Auzmendi interpretariak.

1.- AURREKO AKTAK. 2025-06-26ko aktaren onespena.

Aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da, inolako zuzenketarik aurkeztu ez delako.

2.- ANTOLAKUNTZA BATZORDEKO PROPOSAMENAK:

a.- KREDITU ALDAKETA:

- 5. KREDITU TRANSFERENTZIEN ESPEDIENTEA ETA DIRULAGUNTZEN ERANSKINAREN ALDAKETA. 2025TRFR0005

2025-07-17ko Antolakuntza batzordean eztabaidatutako Alkatearen proposamenaren berri eman da:

“Alkatetza honek Udalbatzari ondorengo Akordio Proposamena egiten dio:

1.- Kreditu transferentzien bidez 8.000,00 euroko zenbatekoaz eta eranskinean zehazten den moduan finantzatzen den kreditu aldaketa hasiera batean onartzea, eta kapituluka honela laburtzen dena:

Kap.	Izena	Euro
2	Gastu arrunt eta zerbitzuen erosketa	8.000,00
GASTUEN GEHIKUNTZA		8.000,00

Kap.	Izena	Euro
4	Transferentzia arruntak	8.000,00
FINANTZIAZIOA		8.000,00

2.- Dirulaguntzen eranskinaren aldaketa hasiera batean onartzea, bertatik aipatutako partida kenduz: 0260.481.338.10.01 Txozna Beasaingo elkarte soziokulturala

3.- Aldaketa jendaurrean jartzea, 15 eguneko epean bidezkoak diren alegazioak aurkeztu ahal izateko. Alegaziorik jasoko ez balitz, behin-betirako onartutzat emango da.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena eta horren ondorioz, ondorengoak ere bai.

KREDITU TRANSFERENTZIAk

Transferitutako kredituak biltzen dituzten gastuen partidak (bajak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Gutxipena	Amaierako kreditua
0260.481.338.10.01	Txozna Beasaingo elkarte soziokulturala	8.000,00	8.000,00	0,00
GUZTIRA ...		8.000,00	8.000,00	0,00

Gehitutako diren kredituak biltzen dituzten gastuen partidak (altak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
0260.226.337.20.06	Gaztedia ekintzak	30.000,00	8.000,00	38.000,00
GUZTIRA ...		30.000,00	8.000,00	38.000,00

- 8. KREDITU GEHIGARRIEN ESPEDIENTEA ETA DIRULAGUNTZEN ERANSKINAREN ALDAKETA. 2025CRAD0008

2025-07-17ko Antolakuntza batzordean eztabaidatutako Alkatearen proposamenaren berri eman da:

“Honekin batera doan proposamenean zerrendatutako gastuak egin beharra izanik eta hauek finantzatzeko aurrekontu kreditu nahikorik ez dagoela kontutan hartuz, Alkatetza honek Udalbatzari ondorengo Akordio Proposamena egiten dio:

1.- 346.785,00 euroko zenbatekoaz kreditu aldaketa hasiera batean onartzea, kapituluka honela laburtzen dena:

Kap.	Izena	Euro
4	Transferentzia arruntak	2.100,00
6	Inbertsio errealak	297.000,00
7	Kapital transferentziak	47.685,00
GEHIKUNTZAK GUZTIRA		346.785,00

Kap.	Izena	Euro
8	Finantza aktiboak	346.785,00
SARRERAK GUZTIRA		346.785,00

2.- Dirulaguntzen eranskinaren aldaketa hasiera batean onartzea, aipatutako partida handituz: 0261.481.341.00.07 Lankidetza hitzarmena: Txindoki atletismo taldea.

3.- Aldaketa jendaurrean jartzea, 15 eguneko epean bidezkoak diren alegazioak aurkeztu ahal izateko. Alegaziorik jasoko ez balitz, behin-betirako onartutzat emango da.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko iritzi hauek azaldu dituzte:

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Aunque vemos la necesidad de efectuar estos gastos nos vamos a abstener.”

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 14 (EAJ-PNV, Beasaingo EH Bildu, ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 2 (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Etorri gabea: 1 (EAJ-PNV)

Beraz, gehiengo osoarekin ondorengoa onartu da.

GASTUAK ETA KREDITU ALDAKETA

Zerrendatutako gastuak gauzatzea premiazkoa denez -horien gauzatzea ezin baita atzeratu eta hauek finantzatzeko aurrekontu kredituak nahikoak ez direla edo krediturik ez dagoela kontuan hartuz, ondorengoa onartu da indarrean dagoen aurrekontu egiturari egokituta.

Aurrekontuko kontu saila	Kontzeptua	Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
0261.481.341.00.07	Lankidetza hitz.: Txindoki atletismo tal	5.000,00	2.100,00	7.100,00
0350.622.326.10.01	Musika Eskolaren birgaitzea	374.500,00	37.000,00	411.500,00
0350.601.153.20.04	Barrendain plaza eraberritzea	1.350.000,00	260.000,00	1.610.000,00
0110.770.420.00.01	Goieki: urbanizaziorako ekarpena	23.850,00	47.685,00	71.535,00
		1.753.350,00	346.785,00	2.100.135,00

b.- ASEGURU-PRIBATUEN ZERBITZU-KONTRATUAREN LUZAPENA. 2023PEBO0014

Ezagutzero eman da 2025-07-17ko Antolakuntza batzordearen proposamena:

“Gaia: Kontratua luzatzea.

AURREKARIAK

I.- 2023-03-02. Udalbatza Osoaren erabakia lizitazio prozedura eta plegu administratibo nahiz teknikoa onartzeari buruzkoa, Beasaingo Udalaren aseguruak kontratatzeke.

II.- 2023-05-18. Lizitazio prozedura burutu ondoren, Udalbatza Osoak erabaki zuen, Aseguru pribatuen 1, 2 eta 3, hau da, higiezin eta higigarriei kalteak, erantzukizun zibila eta ibilgailuak ondorengoari esleitzea: SEGUROS LAGUN ARO, S.A.ri.

III.- Lizitatzailleek Kontratu Legearen 150. artikuluan aurreikusitako dokumentuak aurkeztu ondoren, Alkateak (plenoak horretarako baimena eman da), 2023ko ekainaren 7an Ebazpena eman zuen behin betiko esleipena eginez.

IV.- 2023-07-06an, SEGUROS LAGUN ARO, S.A.rekin zegokion kontratua sinatu zen. Prestazioa emateko epea bi urtekoa izango da, 2023ko irailaren 1etik aurrera, eta berariaz luzatu ahal izango da eta elkarren artean adostu eta gero URTE BATEKO hiru alditan, baina kontratuaren iraupena guztira ez da izango BOST URTEtik gora.

Aldeetako batek uko egiten ez badio kontratua amaitu baino gutxienez hiru (3) hilabete lehenago, kontratazio-organoak kontratua luzatzea erabaki dezake, urtebetez eta gehienez hiru luzapenekin.

V.- Kontratua, 2025-08-31n amaitzen da eta Kontratuaren arduradunak (Antolakuntza eta GBBB Buruak), 2025-06-12an txostena eman du adieraziz ezarritako helburuak behar bezala eta osorik bete direla eta kontratua beste urtebetez luzatzea proposatzen dela. Bestalde Idazkaritzak, 2025-07-11 datarekin, txostena eman du adieraziz zilegi dela kontratua luzatzea beste urte betez.

IV.- Baldintza pleguaren 25. klausularen arabera, prezioa berrikusteko aukerarik ez dago. Primaren kopurua bakarrik aldatuko da aseguraturako ondasunen kopuru aldaketak daudenean, (bajak eta gehitzeak), edota Udal aurrekontuko Quantuma aldatzen denean kontratazio organoak ekintza honetarako ahalbidetu duen Alkatearen aurretiazko onarpen espresoarekin.

OINARRI JURIDIKOAK

Kasu honetan, azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoaren Kontratuak arautzen duen Kontratu Legea aplikatu behar da (29. artikulua). Luzapena aurreikusita egon behar da eta espresuki erabakia hartu behar da. Ezin dena da, tazituki luzatzea. Luzapena IV. Aurrekarietan esanda bezala, baldintza administratibo pleguaren 8. klausulan eta kontratuetan aurreikusia dago.

Beraz, Antolakuntza batzordeak, kontuan izanik, luzapena, organo kontratatzaileak berariaz onartu behar duela, Udalbatza osoari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

Lehenik. 2023-07-06an, SEGUROS LAGUN ARO, S.A.rekin sinatutako kontratua egikaritze epea ondorengoa izanik: bi urtekoa, 2023ko IRAILAREN 1etik kontatzen hasita, kontratua luzatu egingo da beste urtebete. Luzapena espresuki kontratazio organoarekin adostuak izan beharko dira. Enpresariarentzat derrigorrezkoak izango dira, beti ere, bere aurre-abisua kontratuaren iraupen epea amaitu baino hiru hilabete lehenago egiten bada.

Bigarren. Luzapenaren epea urtebetekoa izatea, hau da, 2025eko irailaren 1etik 2026ko abuztuaren 31 arte.

Hirugarren. Alkateari baimena ematea, kontratuaren luzapena sinatzeko.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko ondorengoak azaldu dituzte.

Hasier Agirre Elkoroberezibar (Beasaingo EH Bildu): “Batzordean ere komentatu genuen, batez ere, 2. lotean zer estaltzen den. Hainbat elkarteek transmititu digute ekintzak antolatzerakoan arriskuak daudela eta zailtasun ekonomikoak dituztela. Ekintzak antolatzeko arazoak badituzte are gehiago arriskuak estaltzeko. Jakin badakigu udalak ere hainbat ekitaldi aseguratzeko arazoak dituela. Kontratu-luzapenak amaitzen direnean, hurrengo esleipena gauzatzeko, agian, hausnarketa bat egin daiteke udala eta elkarteen beharrak bateratzeko eta beste modu batera egin daitekeen aztertzeko.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Antolatzen diren ekitaldietan orokorrean antolatzailea arduratzen da bere aseguru propioa kontratatzen. Horrek ez du esan nahi kasuren batean aseguru hori

motz geratu ezkerro, udala atzean ez egotea, solidario edo subsidiarioki erantzuteko. Horrek horrela behar du. Ekonomikoki zailtasunak izatea, salbatu daitekeen zerbait da zeren eta orokorrean elkarreei beharrezko azpiegiturak eta justifikatzen den heinean dirulaguntza bidez laguntzen zaie eta dirulaguntza horien zenbatekoa ez da oztopo izaten. Beste gauza bat da antolaketa horrek eta aseguruak kontratatzea beste oztopo batzuk izatea antolatzaileentzat, baina ez kopuru ekonomikoa hitzarmenetan xehetasun horiek aintzakotzat hartzen direlako. Kasu berezietan, adibidez, Mariren jaitsieran jende asko dagoela eta nolabaiteko erantzukizun potentzial hori hazten dela, udalak osatu egiten du. Beraz, ez luke arazorik egon behar.”

Une honetan bapateko itzulpen lanak egiten duenak esan du sistema kargatu gabe dagoela eta ez duela funtzionatzen.

Etenalditxo bat egiten da.

Bapateko itzulpena egiteko beste neurri batzuk hartu ondoren, bilerari berriz egin zaio.

Aseguruak kontratuak luzatzeko proposamena bozkatu eginda da eta aho batez onartu da.

3.- HERRITARRAK BATZORDEKO PROPOSAMENAK:

a.- DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK:

- EUSKALTEGIETAN EUSKARA IKASTEN ARI DIREN HERRITARREI DIRULAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA ARAUTZEN DUTEN OINARRIAK 2025-2026 IKASTURTERAKO.
2025OIEU0002

Ezagutzera eman da, 2025-07-17ko Herritarrak batzordeko ondorengo proposamena:

Lehenik: 2025-2026 ikasturteko euskaltegietan euskara ikasten ari diren herritarrei dirulaguntzak emateko oinarriak onartzea.

Bigarrenik: Oinarriak BDNSra bidaltzea eta GAO n argitaratu eta hurrengo egunetik hasita eskabideak aurkeztu ahal izango dira.

Eskatzaileak ikastaroa amaitu ondoren egin beharko du dirulaguntza eskabidea.

Epea: Eskabideak aurkeztu ahal izango dira oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasi eta horiek aurkezteko epea 2026ko urriaren 31n amaituko da.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa eginda aho batez oinarri hauek onartu dira.

EUSKALTEGIETAN EUSKARA IKASTEN ARI DIREN HERRITARREI DIRULAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA ARAUTZEN DUTEN OINARRIAK 2025-2026 IKASTURTERAKO

ZIOEN AZALPENA

2/2016 LEGEAn, apirilaren 7koan, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoan, 7.2 artikuluan udalei izendatzen zaie, eskumen propio gisa, hartatik eratortzen diren ahalmen eta funtzioekin, beren lurralde-eremuan euskararen ezagutza sustatzeko eta erabilera dinamizatzeko eskumena.

Helburu hori betetzen laguntzeko, euskara ikasten duten pertsonen ikasketa horien gastuei aurre egiten laguntzeko oinarri hauek prestatu dira honako hauek kontuan hartuta:

- Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzeko erregelamendua, 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua.
- Dirulaguntzak arautzen dituen Udal Ordenantza (GAO, 2018/06/14)

- Beasaingo Udalaren 2023-2025erako dirulaguntzan plan estrategikoa (3. Helburuaren barruan: euskararen ikaskuntza eta erabilera bultzatzea eta normalizatzea. 3.1. ildoak: euskararen ikaskuntza bultzatzea).
- Egiaztatu da aurreko ekitaldian egindako deialdiarekin aurretik aipatutako helburua lortzen lagundu dela. 2023-2024 ikasturtean 64 herritarrek eskatu zuten dirulaguntza hau eta 16.965,74 euro erabili ziren dirulaguntza horiek emateko.

2024-2025 ikasturteko dirulaguntzak eskatzeko epea 2025eko urriaren 31n amaituko da. Une honetan 62 eskaera daude jasota. Ikasturtean zehar ikastaroak egiten dituztenen eskaerak irailean ebatziko dira eta udako ikastaroetakoak, berriz, azaroan, ondorioz, oraindik ez dago emaitzarik.

1.- XEDEA

2025-2026 ikasturtean euskara ikasten diharduten herritarrei dirulaguntzak emateko baldintzak arautzea da oinarri hauen xedea. HABEk homologatutako euskaltegiek eta zentroek emandako euskalduntzeko ikastaroak lagundu ahal izango dira, eta horretarako HABEk ikasturteko ezartzen dituen irizpideak jarraituko dira.

2.- FINANTZIAZIOA

Deialdi hau aldeztu aurretik egingo da, 2026ko ekitaldian ebatziko baita. Beraz, oinarri hauen xede diren dirulaguntzak emateko, kreditu egokia eta nahikoa egon beharko da dirulaguntza emateko ebazpena ematen den unean.

Deialdi honetako dirulaguntzak ordaintzeko Udalak kreditua izango du aurreikusita helburu horretarako sortutako kontu-sailetan:

0230.480.335.30.01 (2025) - 15.000,0 €

0231.480.335.10.01 (2025) - 7.000,00 €

0231.480.335.10.02 (2025) - 15.000,00 €

Baimendutako gastuaren zenbatekoa (37.000,00€) handitu ahal izango du eskumena esleitura duen organoak, aurkeztutako eskabideak ebatzi aurretik, aldaketaren zenbatekoa dela-eta, baina horrek ez du beste deialdi bat ekarriko.

3.- ONURADUNAK

Dirulaguntza hauek eskatzeko ondorengo baldintzak bete behar dira:

- a) 16 urtetik gora izatea dirulaguntzako xede den ikastaroa amaitzen duten datarako.
- b) Beasainen erroldatuta egotea dirulaguntzako xede den ikastaroa egiten duten bitartean. Ikasturtearen iraupen aldi osoan Beasainen erroldatuta egon ez direnek proportzioan jasoko dute dirulaguntza.

Dirulaguntza hauek ezin izango dituzte jaso:

- Azaroaren 17an onarturiko dirulaguntzen 38/2003 Lege orokorreko 13.2 artikuluan (2003ko azaroaren 18ko Estatuko Aldizkari Ofiziala) xedaturiko baldintzetako batean dauden pertsona edo erakundeak.

- Norbanakoek ezin izango dute dirulaguntzarik jaso baldin eta Beasaingo Udalarekin dituzten zorrenatik behartze bidez ordainarazteko prozeduretan hasita badaude, ezta ere udalarekiko zerga obligazioak ordaintzeke izanez gero, harik eta zor horiek, benetan, ordaindu eta kitatzen ez dituzten arte; salbuespen bakarra izango dela zorrak geroratuta edo epeka ordaintzeko izatea edo halakoen exekuzioa bertan behera utzita egotea.

- Zigor eta administrazioaren arloan dirulaguntza publikoak jasotzeko debekurik ez izatea, ezta laguntzak jasotzeko ezgaitzen duen legezko debekurik ere, sexua dela-eta eragindako bereizkeriengatikoak barne direlarik, hain zuzen Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak xedatutakoarekin bat etorriz.

4.- DIRULAGUNTZA LORTZEKO BETE BEHARREKO BALDINTZAK

a) Eskabidea (l. Eranskina) behar bezala beteta eta nahitaezko dokumentazioa dagozkien epeen barruan aurkeztea.

b) Ikastaroa amaitzerako matrikula ordainduta izatea. Ordainketaren gaineko informazioa dagokion euskaltegiak egiaztatuko du ikastaro amaierako ebaluazio txostenean.

c) Euskarazko ikastaroan gutxienez %85eko asistentzia egiaztatzea. Langabetuentzako dirulaguntza eskatzaileek %90eko asistentzia egiaztatu beharko dute. Horretarako, ikastaroaren hasiera- eta amaiera-data hartuko dira kontuan.

5.- DIRULAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA

Kultura, euskara eta merkataritza azpisailari dagokio aurreikusten diren laguntzak kudeatzea. Saileko teknikariak arduratuko dira aurkeztutako eskabideak aztertzeaz eta ebaluatzeaz. Alkatearen ebazpenaren bidez eman edo ukatuko dira laguntzak eta eskatzaileari horren berri jakinaraziko zaio.

Eskaerak aurkezteko epea amaitu eta gehienez bi hilabeteko epean pertsona interesdunari hartutako erabakia jakinaraziko zaio. Ordainketa Alkateak dirulaguntzaren Ebazpena idazten duenetik hilabeteko epean egingo da.

- Neguko ikastaroen kasuan (urria-ekaina bitartean egiten direnak), hurrengo irailean.
- Udako ikastaroen kasuan (uztaila-iraila bitartean egiten direnak), abenduan.

6.- DIRULAGUNTZEN BATERAGARRITASUNA

Oinarri hauetan zehaztutako dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste erakundeek emandako laguntzekin. Kasu horretan Udalarik jakinarazi beharko zaio. Hala ere, ezin daiteke inolaz ere gain finantzazio kasurik izan; hau da, beste entitateekin batera diru-laguntza moduan emandako kopurua ezin da gastuaren balioa baino handiagoa izan.

7.- DIRUZ LAGUNDUKO DEN GASTUA ETA DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA

Bi dirulaguntza mota egongo dira, eta bata bestea baztertzen du:

7.1. Dirulaguntza orokorrak:

Dirulaguntzaren zenbatekoa honakoa izango da:

- A1, A2, B1, B2 eta C1 mailetako ikastaroetan, ikasleak ordaindutako matrikularen %100.
- C2 mailako ikastaroetan, ikasleak ordaindutako matrikularen %50.

Dirulaguntzaren portzentajea kalkulatzeko hasiera maila hartuko da kontuan, eta ez lortutako maila.

7.2. Espezifikoak: baldintza ekonomikoen arabekoak .

Matrikula gastuaren %100 diruz lagunduko da honako egoera hauetakoren batean zeudela egiaztatzen duten pertsonen kasuan:

- Ikastaroa hasi zuten egunean gizarte-larrialdiko laguntza (GLL) jasotzen ari zirenak.
- Ikastaroa hasi zuten egunean diru-sarrerak bermatzeko errenta (DBE) jasotzen ari zirenak.
- Ikastaroak irauten duen bitartean langabezian daudenak.

Barnetegian ez da laguntzarik emango egoitza gastuetarako.

8.- AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

8.1.- Guztiek aurkeztu beharrekoak:

- a) Dirulaguntza eskatzeko inprimakia sinatuta. (I. eranskina)
- c) Matrikula-ordainagiria. Beti ere, ez bada Beasaingo Udal Euskaltegian ikasi.
- d) Euskaltegiaren ziurtagiria, ikastaroaren hasiera eta amaiera data, taldeak emandako ordu kopurua eta ikasleak hartutakoak, hasierako maila eta amaierakoa azalduko dituen. Beti ere, ez bada Beasaingo Udal Euskaltegian ikasi.
- e) Huts egiteak justifikatzeko agiriak. Huts egiteak justifikatzeko ondorengo agiriak bakarrik onartuko dira:
 - 1. LANBIDEk deitu izanaren ziurtagiria
 - 2. Medikuairengana joan izanaren ziurtagiria

9.- DOKUMENTAZIO ELKARRERAGILEA ETA EGIAZTAGARRIA.

- Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 28. artikuluan aitortzen du herritarrek eskubidea dutela dagoeneko administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administrazio egin dituen dokumentuak ez aurkezteko; horrela, administrazio jarduleak dokumentu horiek kontsultatu edo eskatu ahal izango ditu, salbu eta interesdunak horren aurka egiten badu. Administrazio publikoek elektronikoki bildu behar dituzte dokumentuak, beren sare korporatiboen bidez edo datuen bitartekaritza-plataformei edo horretarako gaitutako beste sistema batzuei kontsulta eginez.
- Beasaingo Udala Euskadi Nisae-ko administrazioen elkarreragingarritasun- eta segurtasun-korapiloaren parte da. Plataforma hori komuna da euskal sektore publikoko administrazio eta erakunde guztientzat, eta datu elektronikoen trukea haien artean eta gainerako administrazioekin ezartzeko nodo autonomiko gisa. Horrez gain, Beasaingo Udalak foru sare korporatiboko aplikazioak edo dokumentuak egiaztatzeko eta lortzeko aukera ematen duten beste sistema batzuk erabiliko ditu.
- Deialdi honetan, Beasaingo Udalaren esku dauden ondorengo datuak kontsultatuko dira:
 - a) Errolda agiria.
 - b) Beasaingo Udalarekin zerga betebeharretan egunean egotearen kontsulta.
 - c) Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren jasotzailea den.

- d) Gizarte Larrialdiko Laguntzaren jasotzailea den.
- Eta horiez gain, plataforma korporatiboen, bitartekaritza-plataformen (Nisae) edo sarbide publikoko plataformen bidez egiaztatuko diren betekizunak honako hauek izango dira:

Kasu guztietan:

- a) Poliziaren zuzendaritza Nagusia: NA-NIE, datuak eta egiaztapena.
- b) Gipuzkoako Foru Aldundia:
Foru Ogasunarekiko zerga betebeharrak egunean izatea.
- c) Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra: Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean izatea.

Deialdi honetako langabetuentzako laguntza eskatzen dutenen kasuan ondorengo ere egiaztatuko da:

- a) Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra: lan-bizitza agiria.

Eskatzailea egiaztapen horren aurka badago, berak aurkeztu beharko du dokumentazioa.

Udalak egiaztatzen badu eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe dagoela edo nahikoa ez dela, gehienez hamar eguneko epea dago huts horiek zuzentzeko edo nahitaezko dokumentazioa ekartzeko, udalak egindako errekerimendua jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Horrela egin ezean, eskaria atzera botako da.

Emandako epea igaro eta akatsak zuzendu ez badira, diru-laguntzarako eskabidean atzera egin dela ulertuko da, eta beste izapiderik gabe artxibatuko da eskaera.

10.- ESKABIDEAK AURKEZTEA

Oinarriak BDNSra bidaliko dira, eta GAO n argitaratu eta hurrengo egunetik hasita eskabideak aurkeztu ahal izango dira.

Eskatzaileak ikastaroa amaitu ondoren egin beharko du dirulaguntza eskabidea.

Epea: Eskabideak aurkeztu ahal izango dira oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasi eta horiek aurkezteko epea 2026ko urriaren 31n amaituko da.

Modua: Dirulaguntza eskatzen dutenek eskaera orria aurkeztu beharko dute, behar bezala beteta, bertan agertzen diren agiri guztiekin batera. Beasaingo Udalaren erregistro elektronikoaren bidez ahal izanez gero: <https://www.beasain.eus> edo Udalaren erregistroan, l. Eranskineko ereduaren arabera.

11. HELEGITEAK

Honako oinarri hauen aurka berraztertzeko errekurtsua aurkez daiteke, hilabeteko epean, deialdia onartu duen organo eskudunaren aurrean; bestela, zuzenean kontra egin daiteke bi hilabeteren buruan Administrazioarekiko Auzi Epaitegiaren aurrean.

Aipatu epeak oinarri hauek argitaratu eta hurrengo egunetik hasiko dira zenba tzen bi kasuetan.

- 2027 URTEKO UDAL EGUTEGIA ERATZEKO ARGAZKI LEHIAKETA. 2025OIKU0003

Ezagutzera eman da, 2025-07-17ko Herritarrak batzordeko ondorengo proposamena:

"GAIA: 2027 urteko Udal egutegia eratzeke Argazki Lehiaketa

AURREKARIAK:

- 1.- Ez da erraza zehaztea, Beasaingo Udalak, noiztik Euskara hutsean Udal egutegia eratzen duen. Hasiera batean beste Udal batzuekin elkarlanean egiten zuen eta geroago, 1996 urte inguruan, Beasaingo Udalak, bakarrik egiten bukatu zuen.
- 2.- 2019. urtetik Beasaingo Udalak Argazki Lehiaketa antolatzen du bai azalerako irudia eta baita ere hilabete bakoitzerako erabiliko diren argazkiak aukeratzeko.
- 3.- 2027ko egutegiaren gaia eta, beraz, lehiaketaren gaia Beasaingo baserriak, nekazaritza, abeltzaintza eta azoka da.
- 4.- Jasotako argazkietatik hamabi (hilabete bakoitzeko bat) aukeratuko dira 2027 urtean Beasaingo Udalak argitaratuko duen egutegian erabiltzeko eta hamahirugarrena azalerako. Hamahiru argazki hauek 60na euroko saria jasoko dute.
- 5.- Beasaingo Udalak 780,00 € ematen ditu saritan.
- 6.- Beasaingo Udalak argazki lehiaketan saritutako lanekin 2027ko egutegia eratuko du.
- 7.- Egutegia herritarrei doan eskainiko zaie.

Ondorengoa kontuan hartuta:

LEGERIA APLIKARRIA

- 2016/679 (EB) Erregelamendu Orokorreko eta Datu Pertsonalak Babesteari eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa.
- DBEOaren 6.1.a artikulua.
- 3/2018 Lege Organikoa
- 1/1982 Lege Organikoaren, maiatzaren 5ekoa.

PROPOSAMENA:

Herritarrek batzordeak Osoko Bilkurari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

Lehenik: 2027 urteko Udal egutegia eratzeke Argazki Lehiaketaren oinarriak onartzea.

Bigarrenik: Boletinean gain, Sare sozialetan eta Beasaingo Udaleko web orrian oinarri hauek argitaratzea."

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa eginda aho batez oinarri hauek onartu dira.

2027 URTEKO UDAL EGUTEGIA ERATZEKO ARGAZKI LEHIAKETAREN OINARRIAK

Gaia: "Beasaingo baserriak, nekazaritza, abeltzaintza eta azoka"

ZIOEN AZALPENA

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, 17,1 artikuluan, udalerriaren berezko eskumen gisa aurreikusten ditu:

20) Kultura eta kultura-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kultura-ekipamenduak kudeatzea

Beasaingo Udalak, ohikoa den bezala, urteko egutegia euskara hutsean eskaini nahi die herritarrei eta gertukoei. Egutegia eratzeko, Udalak, argazki lehiaketa antolatzen du bai azalerako irudia eta baita hilabete bakoitzerako ere erabiliko diren argazkiak aukeratzeko.

2027ko egutegiaren gaia " Beasaingo baserriak, nekazaritza, abeltzaintza eta azoka" izango da.

Baserriek tokiko nortasuna eta kultura, ohiturak eta tradizioak islatzen dituzte. Aurtengo gaiak aberastasun bisual handia eskaintzen du paisaiei, landa-arkitekturari eta eguneroko bizitzako irudiei esker. Izaki bizidunak lurrarekin duen harremana eta tradizionalaren balioa plazaratzea ahalbidetzen du. Estetika, historia eta emozio handiko gaia da. Gainera, jasangarriarekiko eta benetakoarekiko egungo interesarekin bat egiten du.

Horregatik, Beasaingo baserri eta landa paisaien irudiak jaso nahi genituzke, arkitektura tradizionala eta ingurune naturala erakutsiz. Horrez gain, nekazaritzako eta abeltzaintzako lanen argazkiak eta baserriko eta azokako eguneroko bizitzako uneak, lan tresnak, baita gure inguruari lotutako kultura eta tradizioak islatzen dituzten uneak ere.

Hori bai, ezinbestekoa da argazki horiek Beasainen ateratakoak izatea edo argazkian antzeman ahal izatea Beasain dela.

Horretarako, dirulaguntzak emateko oinarri hauek prestatu dira, honako hauek kontuan hartuta:

- Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzen duen erregelamendua, 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua.
- Dirulaguntzak arautzen dituen Udal Ordenantza (GAO, 2018/06/14).
- Beasaingo Udalaren 2023-2025eko dirulaguntzen plan estrategikoa (2. helburu estrategikoa: udalerriko kultura-jarduera sustatzea. 2.2 ildoak: kultur sorkuntzaren sustapena).

2025erako deialdirako eskabideak aurkezteko epea irailaren 30ean amaitzen da, eta, horregatik, 2024rako egindako deialdia aipatzen da, aurkeztutako eskabideak kontuan hartuta:

- Herritarrek udal-ekimen honetan parte hartzeko duten interesa.
- Horrek Udalak urteko egutegia egin ahal izateko egiten duen ekarpena.
- Beasaindarren artean egutegi horrek duen harrera ona baino hobe, Beasaingo herriarekin lotura estua baitu.

LEHENA. XEDEA

Oinarri hauen helburua da argazki lehiaketa bat antolatzea, 2027ko egutegian 13 argazki sartzeko. Epaimahaiak hautatutako argazkiak sarituko dira, oinarriek arautzen dutenarekin bat etorritik.

BIGARRENA.AURREKONTUA

Hurrengo oinarrietan ezarritako laguntzak finantzatzeko aurreikusitako aurrekontua 780,00 €-koa da.

Aurretiazko izapidetzea da, eta 887/2006 RGSren 56. artikulua, deialdiaren ebazpena oinarri hauek onartu eta argitaratu eta hurrengo ekitaldian egingo baita, eta hori gertatzen da normalean gastuaren aurrekontu-estaldurarako kreditu egokia eta nahikoa dagoelako (aurrekontuaren 0240.480.334.20.03 zenbakidun partida).

Adierazitako zenbatekoa zenbatetsia da, eta, beraz, dirulaguntzak emateko, kreditu egokia eta nahikoa egon behar da, dirulaguntza emateko ebazpena ematen den unean.

HIRUGARRENA. PROZEDURA

Sariak emateko prozedura norgehiagokakoa da, epaimahaiak ebaluatuko dituen eskabideek bat egin dezaten.

LAUGARRENA. PARTEHARTZEKO BALDINTZA OROKORRAK

- Parte hartu nahi duen ororentzat irekia.
- Ezinbestekoa da argazkiak Beasaingo udalerrian ateratakoak izatea edota gunea Beasain dela argazkian bertan argi ikusaraztea.
- Modalitatea: zuri beltzean naiz koloretan, berdin da.
- Argazkiak gaur egungoak edo aspaldikoak izan daitezke.
- Egileak ezin izango du erabili saritutako argazkia honen berri jakinarazten zaionetik egutegiaren aurkezpena egin arte.
- Lanak: Gehienez 4 lan egile bakoitzeko. Aldez aurretik argitaratu gabekoak edota beste lehiaketetan saritu gabekoak.
- Emate formatua: argazkiek formatu etzana izango dute. Irudiak JPG formatuan egon behar dira, 2500px alde zabalena, 250 ppp eta RGB kolore espazioan. Fitxategiak ezin ditu 6 Mega pasa.

Honako hauek ezin izango dira sari hauen onuradun izan:

- Lege honetako 2. artikuluan aurreikusitako egoeraren batean dauden pertsonak. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikulua (2003ko azaroaren 18ko EAO).
- Beasaingo Udalarekin hartutako zorrak premiamendu bidez kobratzeko prozeduretan sartuta dauden partikularrak, ezta Udalarekiko zerga-betebeharrak egunean ez dituztenak ere, harik eta zor horiek benetan ordaindu eta kitatu edo bete arte, salbu eta zor horiek geroratuta, zatikatuta edo betearazpena etenda dagoenean.
- Zigor- edo administrazio-arloan dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzearekin zigortuak izan direnak, edo horretarako ezgaitzen dituen legezko debekuren baten eraginpean daudenak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexu-bereizkeriagatik gertatutakoak barne.

Dokumentazio elkarreragilea eta egiaztagarria.

- Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 28. artikuluan aitortzen du herritarrek eskubidea dutela dagoeneko administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administraziok egin dituen dokumentuak ez aurkezteko; horrela, administrazio jarduleak dokumentu horiek

konsultatu edo eskatu ahal izango ditu, salbu eta interesdunak horren aurka egiten badu. Administrazio publikoek elektronikoki bildu behar dituzte dokumentuak, beren sare korporatiboen bidez edo datuen bitartekaritza-plataformei edo horretarako gaitutako beste sistema batzuei kontsulta eginez.

- Beasaingo Udala Euskadi Nisae-ko administrazioen elkarreragingarritasun- eta segurtasun-korapiloaren parte da. Plataforma hori komuna da euskal sektore publikoko administrazio eta erakunde guztientzat, eta datu elektronikoen trukea haien artean eta gainerako administrazioekin ezartzeko nodo autonomiko gisa. Horrez gain, Beasaingo Udalak foru sare korporatiboko aplikazioak edo dokumentuak egiaztatzeko eta lortzeko aukera ematen duten beste sistema batzuk erabiliko ditu.
- Deialdi honetan, plataforma korporatiboen, bitartekaritza-plataformen (Nisae) edo sarbide publikoko plataformen bidez egiaztatuko diren betekizunak honako hauek izango dira:

a) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.

b) Egunean izatea zerga-betebeharrak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun Departamentuarekin egiaztatuko direnak.

Erakunde eskatzailea egiaztapen horren aurka badago, berak aurkeztu beharko du dokumentazioa.

Aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe badago, gehienez hamar eguneko epea dago huts horiek zuzentzeko edo nahitaezko dokumentazioa ekartzeko, udalak egindako errekerimendua jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Horrela egin ezean, eskaria atzera botako da.

Emandako epea igaro eta akatsak zuzendu ez badira, diru-laguntzarako eskabidean atzera egin dela ulertuko da, eta beste izapiderik gabe artxibatuko da eskaera.

BOSGARRENA. OINARRIAK ARGITARATZEA

Oinarri hauek BDNSra bidaliko dira Udaleko osoko bilkurak onartu ondoren, eta ondoren GAO-n argitaratuko dira.

Gainera, oinarriak eta deialdia Udalaren webgunean (www.beasain.eus) eta sare sozialetan argitaratuko dira

Zalantzak edo kontsultak kultura, euskara eta merkataritza azpiarloan argituko dira.

SEIGARRENA. AURKEZTEWKO MODUA ETA EPEA

Epea: Azken eguna, 2026ko irailaren 30a.

Modua:

- Bai argazki bidalketa, bai izen- ematea era digitalean egingo da Udalak asmo horretarako espresuki argitaratu duen formularioa erabiliz.
- www.beasain.eus
- Honakoa eskatuko da: izen-deiturak, NAN zenbakia eta kontu korrentearen zenbakia (bakarrik sariduneei), helbide osoa, telefono zenbakia, e-maila, argazkiaren zenbakia, izenburua eta deskribapena.

- Fitxategiaren izena argazkiaren zenbakiarekin hasi behar du, kokalekuarekin jarraitu eta argazkiaren izenburuarekin bukatu. Adib:
 - 1_Altamira auzoa. XXX baserria eta abuztuko uzta. jpg (eraikina eta baratza)
 - 2_Beasainmendi. Txerri festa.jpg (txerria hiltzea)
 -
- Argazki bakoitzak azalpen edo deskribapen labur bat behar du.
- Haurren irudiak baleude eta horiek ezagutzeko moduan azaltzen balira, ezinbestekoa da egile bakoitzak argazkian ateratzen diren 14 urte azpikoen haurren gurasoen, tutoreen edo arduradun legalen baimena idatziz bidaltzea irudi horiek publikatu ahal izateko. Argazkian ateratzen den adingabea 14 - 18 urte bitartekoa bada, adingabeak, berak, idatzitako baimena helaraziko du argazkiaren egileak. 18 urtetik gorakoek ere oniritzia idatziz emango dute argazkiaren egilearen bidez.

ZAZPIGARRENA. EPAIMAHAIAREN OSAERA

Epaimahaiadeak:

- Herritarren arloko zinegotzia delegatua. Bere ordezkari Alkatea.
- Komunikazioko teknikaria
- Euskarako teknikaria
- "Argizpi" argazki elkartearen kide bat
- "Beasaingo baserriak, nekazaritza eta abeltzaintza" gaian aditua edo gaiarekin lotura duen pertsona bat.
- Berdintasun azpiarloko zinegotzi delegatua edo teknikaria
- Kulturako teknikaria, hitza duena baina botorik ez, idazkari lanetan

Beraien erabakia eztaba daezina izango da.

ZORTZIGARRENA. BALORAZIO IRIZPIDEAK

- Eskatutako gaiari lotutako atxikipena eta hori transmititzeko gaitasuna.
- Originaltasuna eta sormena.
- Inpaktu bisuala eta estetika.
- Kalitate teknikoa, konposizioa, argiztapena, eta estiloa.
- Genero ikuspegia kontuan izatea.

BEDERATZIGARRENA. LEHIAKETAREN EBAZPENA ETA SARI BANAKETA

Jasotako argazkietatik epaimahaiak hamabi aukeratuko ditu 2027 urtean Beasaingo Udalak argitaratuko duen egutegian erabiltzeko eta hamahirugarrena azalerako. Hamahiru argazki horiek 60na euroko saria jasoko dute.

Alkateak, epaimahaiaren erabakia kontuan hartuta, irabazitako saria emateko eta ordaintzeko ebazpena emango du, eta sariak banatu aurretik jakinaraziko zaie irabazleei.

Epaimahaiaren erabakia Beasaingo Udalaren web orrian argitaratuko da, gainontzeko partehartzaileak eta publiko orokorra jakinaren gainean egon daitezen.

2027ko egutegiaren aurkezpena: 2026ko abenduan egingo da, eta sarituak izan direnak gonbidatuko dira bertan parte hartzera.

HAMARGARRENA. ARGAZKIAK ERABILTZEKO BAIMENA

Beasaingo Udalak, argazkiak erreproduzitzeko, banatzeko eta jakinarazpen publikoan erabiltzeko eskubidea izango du. Egileak, eskubide horiek uztearen truke, inoiz ezingo du lehiaketako sariaz gain beste ordainsaririk eskatu.

HAMAIKAGARRENA. JABETZA INTELEKTUALA

Parte-hartzaileak dira oinarri hauetan ezarritako betebeharrak ez betetzearen erantzule bakarrak, eta, ildo horretan, indarrean dagoen legedia hartuko dute kontuan, Beasaingo Udala erru guztietatik salbuetsiz.

HAMAIKAGARRENA. DATU PERTSONALEN BABESA ETA IRUDI-ESKUBIDEAK

Datu pertsonalak Datuak Babesteko 2016/679 (EB) Erregelamendu Orokorrean eta Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan jasotako datuen babesari buruzko araudiaren eskakizunen arabera tratatuko dira.

Datu pertsonalak tratatzeko legitimazioa interesdunaren berariazko baimenean eta lehiaketaren oinarri arautzaileen onarpenean oinarritzen da (DBEOaren 6.1.a). Halaber, adostasuna kendu ahal izango da, aldez aurretik egindako tratamenduen zilegitasunari eragin gabe.

Parte-hartzaileek beren informazio pertsonalaren egiazkotasuna, zehaztasuna, indarraldia eta benetakotasuna bermatu eta erantzuten dute, eta 3/2018 Lege Organikoak eskatzen duen berariazko baimena lortu izana, aurkeztutako obren irudietan agertzen diren pertsonen dagokienez.

Halaber, parte-hartzaileek bermatzen dute 1/1982 Lege Organikoaren, maiatzaren 5ekoa, ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidearen babes zibilar buruzkoa, eskakizunak betetzen dituztela, eta beren obretan hirugarrenen irudia erabiltzeko legezko baimena eta/edo gaikuntza dutela.

Datuak lehiaketa kudeatzeko beharrezkoak diren bitartean gordeko dira, eta, amaitu ondoren, legeek edo nahitaez bete beharreko arauak ezarritako betebeharrak eta erantzukizunak betetzeko legez ezarritako epeetan, edo agintaritza eskudunak, zuzenbidearen arabera, hala eskatzen duenean.

Tratatzen ditugun datuak beharrezkoak dira lehiaketa kudeatzeko, lehiakideekin harremanetan jartzeko eta saria emateko. Ez da erabaki automatizaturik hartuko datuetan oinarrituta, eta ez dira erabiliko pertsonaren profila egiteko.

Datu pertsonalak ez dira hirugarrenei komunikatuko, ezta hirugarren herrialdeei edo nazioarteko erakundeei transferituko ere.

Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko edo horien aurka egiteko eskubideak baliatu ahal izango dira Beasaingo Udalarik idatzizko eta sinatutako eskaera bat bidaliz honako posta-helbide honetan: Loinazko San Martin Plaza, 1, 20200 – Beasain. Halaber, kontrol-agintaritzan erreklamazioa jartzeko eskubidea dago.

(<http://www.avpd.euskadi.eus>)

Tratamenduaren arduraduna Beasaingo Udala da. Tratamenduaren arduradunarekin edo datuak babesteko ordezkariarekin harremanetan jar zaitezke (Loinazko San Martin Plaza 1, 20200 - Beasain) edo (udala@beasain.eus).

HAMAHIRUGARRENA. APLIKATU BEHARREKO ARAUDIA.

Deialdi honetan aurreikusita ez dagoen guztirako, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea aplikatuko da.

HAMALAU GARRENA. EBAZPENA ETA ERREKURTSOAK.

Deialdi hau administratiboa da, eta, beraz, Udalak ahalmena du hura interpretatzeko eta aplikaziotik edo ebazpenetik sor daitekeen edozein desberdintasun ebazteko.

Oinarri hauen aurka, administrazio-errekurtsoa aurkeztu daiteke Gipuzkoako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean, oinarri horiek GAO-n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Aldez aurretik, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman zuen organoari, hilabeteko epean, ebazpena GAO-n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.”

b.- KONTRATUAREN LUZAPENA. PLAZAPE TABERNAREN USTIAPENA ETA PLAZAREN ETA MERKATUAREN DINAMIZAZIOA. 2021BOCU0018

Ezagutzera eman da 2025-07-17ko Herritarrak batzordeko proposamena:

PLAZAPE TABERNAREN USTIAPENA ETA PLAZAREN ETA MERKATUAREN DINAMIZAZIOA KONTRATUAREN LUZAPENA

AURREKARIAK:

- 1. Dagokion espedientearen tramitatu ondoren, 2021eko urriaren 29an, BEASAINGO UDALAK eta ARDOA ETA AZOKA, S.L. enpresak, Plazape tabernaren ustiapena, Beasaingo Udalaren jabetzakoa, ondoko komun eta dutxa publikoekin batera, eta plazaren (plaza azpia eta Zubimuzu) eta merkatuaren dinamizazioa sustatzeko kontratu administratiboa sinatu zuten.*
- 2. Kontratuaren egikaritze epea, bi urtekoa da kontratua sinatu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Kontratuaren arabera, beste hiru urtez luzatzeko ahalmena du Beasaingo Udalak, beti ere urtez urte.*
- 3. 2021eko urriaren 29an sinatutako kontratuaren egikaritze epea bi urtekoa izanda, Kontratua 2023ko urriaren 29an iraungi zen. Lehenengo luzapena 2024ko urriaren 29an amaituko zen eta 2025eko data berdinean bigarren luzapena amaituko da..*
- 4. 2025eko ekainaren 6an, kontratuaren hirugarren luzapena egiteko asmoa jakinarazi zitzaion ARDOA ETA AZOKA S.L.ri, baldin eta 2024ko jarduera-memoria eta 2025eko jarduera-proposamena aurkezten badituzte. Gai hauek 2025eko martxoan egindako jarraipen bileran tratatu ziren.*
- 5. Kultura teknikariak 2025eko uztailaren 3an luzatzearen aldeko txostena egin zuen.*
- 6. Herritarren batzordeak kontuan izanik luzapenak bi aldean arteko espresuki hartutako erabakia eskatzen duela, Udalbatzari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:*

Lehenik: 2021eko urriaren 29an, BEASAINGO UDALAK eta ARDOA ETA AZOKA, S.L. enpresak sinatutako kontratuaren hirugarren eta azken luzapena egitea Plazape tabernaren ustiapena, Beasaingo Udalaren jabetzakoa, ondoko komun eta dutxa publikoekin batera, eta plazaren (plaza azpia eta Zubimuzu) eta merkatuaren dinamizazioa egiteko

Bigarrenik: Luzapena urtebetekoa izango da, 2025-10-30etik kontatzen hasita.

Hirugarrenik: Kontratuaren baldintza ekonomiko bera izango da; hau da, ordaindu beharreko kanona 12.500,00+ BEZ/urtean.

Bere horretan mantenduko dira plazako dinamizazio kulturalaren eta hilabeteroko merkatuaren dinamizazioaren inguruko betebeharrak eta duxa eta komun garbiketa eta mantenua.

Laugarrenik: Alkateari baimena ematea kontratuaren luzapena sinatzeko.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa eginda aho batez onartu da proposamena.

4.- LURRALDE BATZORDEKO PROPOSAMENAK:

a.- BEASAINGO UDALERRIKO ERAIKIN ETA ETXEBIZITZETAN ENERGIA HOBETZEKO JARDUKETETARAKO DIRULAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILEAK. 2025DIRU0013

Ezagutzera eman da, 2025-07-17ko Lurralde batzordeko ondorengo proposamena:

Lehenik: Energia hobetzeko jarduketetarako dirulaguntzen oinarri arautzaileak onartzea.

Bigarrenik: Oinarriak BDNSra bidaltzea eta GAO n argitaratu eta hurrengo egunetik hasita eskabideak aurkeztu ahal izango dira.

Epea: Eskabideak aurkeztu ahal izango dira oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasi eta horiek aurkezteko epea 2025eko azaroaren 30ean amaituko da.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko ondorengo iritzia azaldu dituzte:

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Nosotros estamos a favor de estas ayudas porque es una propuesta que trajimos para los presupuestos de 2025. Lo único decir que cuando las solicitudes superen la cantidad recogida en presupuestos, se supone que se otorgarán siguiendo el orden de presentación de las mismas. Entendemos que estas ayudas vienen para quedarse y por ello proponemos que si la solicitudes superan el crédito previsto, se haga un cálculo para cubrir todas las solicitudes”.

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Gure asmoa, denei laguntzea da. Esan den bezala dirulaguntza hauek, 2024ko urtariletik 2025eko azaroaren 30arteko lizentzia duten interbentzioak diruz laguntzea da. Eskerak, oinarriak argitaratzen direnetik 2025eko azaroaren 30arte aurkeztu daitezke eta posible da batzuk kanpoan geratzea, baina hurrengo urteko dirulaguntzak 2025etik 2026ra izango dira. Beraz, denak onartuak izango dira. Nik proposatzen dut froga moduan horrela onartzea eta ikusiko dugu zenbat eskaera jasotzen diren eta datorren urteko oinarrietan beharbada aldaketa batzuk txertatuko ditugu.”

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Dado que es la primera vez que se aprueban, realizar un cálculo a priori no es fácil, pero teniendo en cuenta las solicitudes que se presenten podemos ir aprendiendo cómo se deben regular.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Bai, hori da helburua.”

Bozketa eginda, aho batez ondorengo oinarriak onartu dira:

BEASAINGO UDALERRIKO ERAIKIN ETA ETXEBIZITZETAN ENERGIA HOBETZEKO JARDUKETETARAKO DIRULAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILEAK.

ZIOEN AZALPENA

Etxebizitzak birgaitzearen arloan eraikinen birgaitze energetikoa sustatuko duen politika aktibo bati eusteko beharrak laguntza ekonomiko espezifiko bat sortzea gomendatzen du.

Lehendik dauden eraikinen parkeak azken energiaren % 30,6 inguru kontsumitzen du, eta, beraz, haren birgaitze energetikoa lehentasunezko neurri gisa agertzen da 2023-2030 aldirako Energia eta Klimaren Plan Nazional Integratuan. Plan horretan, 2030erako energetikoki 1.380.000 etxebizitza birgaitzeko helburua ezarri da. Helburu hori, halaber, Espainiako eraikuntzaren sektoreko birgaitze energetikorako epe luzeko estrategian jaso da.

Estatuko eta autonomia-erkidegoko laguntzak eraikinetan eta etxebizitzetan birgaitze-obrak batera egitean oinarritzen badira ere, haien inguratzaile termikoan jardunez, oinarri hauen xedea eskala txikiagoko jarduketak egitea da, etxebizitzaren energia-hobekuntza ere ekarriko dutenak.

Zehazki, oinarriek lau jardun-ildo dituzte, 5. artikuluan jasotzen direnak.

1. artikulua. Xedea.

Oinarri hauen xedea da Besaingo Udalak jabeen erkidegoei eta etxebizitzaren jabeen lehia publikoaren araubidean ematen dizkien dirulaguntzak arautzea, bizitegi-eraikinetan energia-efizientzia hobetzeko jarduketarako.

Laguntza horiek arautzen dituen esparru juridikoa, funtsean, honako hauetan dago jasota:

- Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzeko erregelamendua, 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua.
- Dirulaguntzak arautzen dituen Udal Ordenantza (GAO, 2018/06/14).
- Beasaingo Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa 2023-2025 (7. helburua: Udalerrri osasungarri, jasangarri eta irisgarri bat sortzen laguntzea. 7.4 ildo: Etxebizitzak birgaitzea. Energia-eraginkortasuna sustatzea).
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa. Udalari eskumen propioak ematen dizkio gai honetan: *17.1, 8) artikulua. Ingurumenaren antolamendu osagarria, sustapena, kudeaketa, defentsa eta babesa, eta garapen iraunkorra, hiriguneetako kutsadura akustiko, argi eta atmosferikoaren aurkako babesa barne.*

2. artikulua. Dirulaguntzaren xede diren jarduketak.

Diruz lagundu ahal izango dira 2024-01-01aren ondoren emandako udal-lizentziaren babespeko jarduerak, 2025-11-30aren aurretik amaitutakoak eta oinarri arautzaile hauetan aurreikusitako baldintzak betetzen dituztelarik horretarako ezarritako epean dagokion laguntza eskatzen dutenak.

3. artikulua. Finantzaketa

Deialdi honen xede diren laguntzak finantzatzeko, Udalak 20.000 euroko kreditua aurreikusi du horretarako sortutako aurrekontu-partidan: 0350.480.172.00.01.

Dirulaguntzak udal erregistro elektronikoan laguntza-eskabideen sarrera-ordenari jarraituz emango dira.

Ez da kreditua handitzeko aukerarik egongo; beraz, kreditua agortzen denean, ez da beste laguntzarik emango ekitaldi ekonomiko honetan egindako jardueretarako.

4. artikulua. Onuradunak.

Honako hauek eskatu ahal izango dute dirulaguntza:

1. Jarduketaren xede den higiezinaren jabetza horizontaleko araubidean dauden bizitegi-tipologia kolektiboko eraikinen jabeen erkidegoak.

2. Etxebizitza-jabea. Jarduketa etxebizitzan gauzatu denean.

Etxebizitza-jabeen kasuan, ohiko etxebizitza izan beharko da, eta bertan erroldatuta daudela egiaztatu beharko dute, dirulaguntza eskatu baino urtebete lehenagotik gutxienez.

Oinarri hauetan araututako dirulaguntzen onuradun izateko, Udalbatzak onartutako dirulaguntzak arautzen dituen udal-ordenantzan adierazitako baldintzak bete beharko ditu eskatzaileak (2018ko ekainaren 14ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 114. zk.).

5. artikulua. Eremua. Diruz laguntzeko ekintzak

** Jabeen erkidegoentzako laguntzak.*

- Ur bero sanitarioa (UBS) aerotermiaren, eguzki-energia termikoaren edo energia berriztagarrien beste sistema batzuen bidez ekoizteko sistema bat instalatzea.

- Aerotermia, biomasa-galdara edo energia berriztagarrien beste sistema batzuk dituen berokuntza-sistema bat eta UBS zentralizatu bat instalatzea, banakako kontsumoak kontrolatzeko banaketa barne.

** Etxebizitzaren jabeentzako laguntzak.*

- Dauden galdara indibidualak ordeztzea. Dauden galdara indibidualen ordeztzea (etxeko ur beroa eta/edo berokuntza), errendimendu handiko gas naturaleko galdarak, aerotermia, ekoizpen-sistema hibridoak edo energia berriztagarrien beste sistema batzuk jartzea.

- Beirazko itxiturak ordeztzea (leihoak eta kanpoko ateak).

Diruz lagundu daitezkeen jarduketaren ezaugarriak I. eranskinean ezarrita daude.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak gauzatuko diren eraikinen, 2006ko urtarilaren 1a baino lehenagoko obra berriaren aitorpena izan beharko du.

6. artikulua. Betekizunak.

Laguntza hauetatik kanpo geratzen dira:

- Bizitegitarako ez diren eraikinak.

- Obra egikaritzeari dagokion hirigintza-lizentziak babesten ez dituen jarduketak.

Onuradunak ezin izango dira:

- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikuluan aurreikusitako egoeraren batean dauden pertsonak edo erakundeak (2003ko azaroaren 18ko BOE).

- Beasaingo Udalarekin hartutako zorreatatik premiamendu-bidez kobratzeko prozeduretan sartuta dauden partikularrak edo erakundeak, edo zor horiek benetan ordaindu, kitatu edo bete arte Udalarekin zerga-betebeharrak egunean ez dituzten pertsonak, salbu eta zor horiek geroratuta, zatituta edo gauzatzea etenda badago.
- Dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen administratibo edo penala jaso dutenak, edo horretarako legezko inolako debekurik dutenak, sexu-bereizkeriagatiko debekuak barne, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testuategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren arabera.
- Foru Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin zorrak dituztenek.

Dokumentazio elkarreragingarria eta egiaztagarria

Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 28. artikuluan aitortzen du herritarrek eskubidea dutela administrazio jardulearen esku dauden dokumentuak edo beste edozein administrazio egindakoak ez aurkezteko, halako moldean non administrazio jarduleak dokumentu horiek kontsultatu edo eskuratu ahal izango dituen, salbu eta interesdunak horren aurka egiten badu. Administrazio publikoek elektronikoki eskuratu behar dituzte dokumentuak, beren sare korporatiboaren bidez edo plataformei kontsulta eginez datu-bitartekaritzakoak edo horretarako gaitutako beste sistema batzuetakoak.

Beasaingo Udala NISAE Euskadiko administrazioen elkarreragingarritasun- eta segurtasun-lotunearen parte da. NISAE plataforma komuna da euskal sektore publikoko administrazio eta erakunde guztientzat, haien artean eta gainerako administrazioekin datu elektronikoak trukatzeko nodo autonomiko gisa. Horrez gain, Beasaingo Udalak foru-sare korporatiboko aplikazioak edo dokumentuak egiaztatzeko eta lortzeko aukera ematen duten beste sistema batzuk erabiliko ditu.

Deialdi honetan, honako baldintza hauek egiaztatuko dira plataforma korporatiboan, bitartekaritza-plataformen (NISAE) edo sarbide publikoko plataformen bidez:

- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.
- Egunean izatea zerga-betebeharrak, zeina Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun Sailarekin egiaztatuko baita.

Dirulaguntzaren eskatzaileak egiaztapen horren aurka egiten badu, edo Udalarekin zerikusirik ez duten inguruabarrak direla-eta ezin badu informazioa adierazitako moduan lortu, eskatzaileak berak aurkeztu beharko du dokumentazioa.

7. artikulua. Dirulaguntzaren zenbatekoa eta mugak.

1. Dirulaguntzen kopurua:

* Jabeen erkidegoentzako laguntzak.

- Ur bero sanitarioa (UBS) aerotermiaren, eguzki-energia termikoaren edo energia berriztagarrien beste sistema batzuen bidez ekoizteko sistema bat instalatzea.
- Aerotermia, biomasa-galdara edo energia berriztagarrien beste sistema batzuk dituen berokuntza-sistema bat eta UBS zentralizatu bat instalatzea, banakako kontsumoak kontrolatzeko banaketa barne.

Bi kasuetan, laguntzaren guztizko zenbatekoa instalazioaren kostuaren % 10ekoa izango da, gehienez 6.000 € Jabeen Erkidego bakoitzeko. Diruz lagundu daitekeen kostuak barne hartuko ditu bai instalazioaren kostua, bai instalaziorako behar diren proiektu teknikoaren kostuak, betiere I. eranskinean eskatutako baldintzak betetzen badira.

* Etxebizitzaren jabeentzako laguntzak.

- Dauden galdara indibidualak ordezteak. Dauden galdara indibidualen ordeza (etxeko ur beroa eta/edo berokuntza), errendimendu handiko gas naturaleko galdarak, aerotermia, ekoizpen-sistema hibridoak edo energia berriztagarrien beste sistema batzuk jartzea.

Beste galdara baten ordeza kondentsazio-galdara berri bat instalatzeko laguntza espezifikoaren guztizko zenbatekoa 400 € izango da, betiere I. eranskinean eskatutako baldintzak betetzen baditu.

- Beirazko itxiturak ordezteak.

Kristalezko itxiturak berritzeko laguntzaren guztizko zenbatekoa, kontzeptu horrengatik egindako inbertsioaren diruz lagun daitekeen kostuaren % 30ekoa. Gehieneko kostu hori, leihoaren m² bakoitzeko, 400 eurokoa izango da, eta, nolatan ere, 1.200 eurokoa etxebizitza bakoitzeko gehieneko dirulaguntza.

Aurrekontu babesgarriaren kalkuluan, leihoguztien kostuak (markoa, beirak eta pertsianaren tiradera) eta horien instalazioa sartu ahal izango dira.

Hala ere, honako hauek ez dira diruz laguntzeko moduko kostutzat hartuko:

- Kanpoko arotzeria beiratzatuaren osagaien bat konpontze edo ordezte soiltzat jotzen diren jardunak.

- Igeltserotza- eta/edo pintura-kostuak, arotzeria instalatzearen ondoriozkoak.

- Osagaiak, hala nola kontraleihoak edo antzekoak, pertsiana-motorrak, eltxo-sareak, esekilekuak, barandak, etab

- Eta, oro har, argi eta garbi definituta ez dauden gastuak edo zuzenean etxebizitzaren energia-hobekuntza lortzeko helburua ez dutenak.

8. artikulua. Eskabidea aurkezteko modua eta eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa

1. Eskabideak formalizatzeko eskabide-eredua bete beharko da.

Jabeen erkidegoen eskabideak elektronikoki aurkeztuko dira udal-erregistro elektronikoa, deialdian aurreikusitako epean. Eskabidearekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira.

Partikularrek egindako eskaeren kasuan, eskaerak Udaleko Erregistro Orokorrean ere aurkeztuko dira, aurrez aurre edo telematikoki.

2. Eskaerari ondorengo dokumentazioa atxikiko zaio:

- Jabeen erkidegoaren IFZ eta ordezkariaren NAN.
- Jabeen Erkidegoaren Batzarraren aktak, Erkidegoaren presidentea edo Administrazioaren aurrean haren ordezkaria izendatu dela eta dirulaguntzaren xede diren obrak onartzen dituen erabakia jasotzen dutenak.
- Erantzukizunpeko berariazko adierazpena:
 - a) Beste administrazio publiko edo erakunde bati dirulaguntzarik eskatu edo jaso ez izana.
 - b) Eskaera egin den eta oraindik ebazpenik jaso ez den.
 Dirulaguntza eskatu bada, eskaeraren egiaztagiriak, eta, ebatzi bada, haren ebazpena.
- Teknikari elkargokide baten esku-hartzea behar duten obren kasuan, obra-amaierako ziurtagiria aurkeztu beharko da, dagokion elkargo profesionalak behar bezala ikus- onetsita, dagokion faktura eta ordainketa agiria.
- I. eranskinean diruz lagun daitekeen jarduketa bakoitzerako ezarritako baldintzak egiaztatzea.
- Industria-instalazioaren ziurtagiriak, behar izanez gero.
- Obraren titularren banku-kontuaren zenbakia (20 digitu), eman daitekeen dirulaguntza ordaintzeko.
- Obren edo instalazioen fakturak eta ordainketa-ziurtagiriak.
- Obra partikularren kasuan, Jabetza Erregistroaren ohar soila, etxebizitzaren titulartasuna egiaztatzen duena.

Nolanahi ere, aurkeztutako dokumentazioaz gain, BEASAINGO Udalak beharrezkotzat jotzen duen informazio osagarri guztia eskatu ahal izango die eskatzaileei, aurkeztutako jarduera edo programa baloratzeko.

9. artikulua. Oinarrien publizitatea ematea eta eskaerak aurkezteko epea.

Oinarriak BDNSra bidaliko dira, eta GAO n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, eskabideak aurkezteko epea zenbatzen hasiko da eta 2025eko azaroaren 30a arte izango da.

Eskaerak, aurreko oinarrian esandakko moduan aurkeztuko dira.

Aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe badago, nahitaezko dokumentazioa zuzendu edo aurkeztu beharko da, gehienez ere hamar eguneko epean, Udalak egindako errekerimendua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Bestela, eskaera ukatu egingo da.

Epe hori igaro eta zuzenketarik egin ez badu, dirulaguntzaren eskaeran atzera egin duela ulertuko da, eta eskabidea artxibatu egingo da beste izapiderik egin gabe.

10. artikulua. Laguntza eskaerak kudeatzea.

Beasaingo Udaleko Lurralde Arloaren zerbitzu teknikoek dagokie laguntza-eskaeren azterketa teknikoa eta balorazioa egitea eta Alkatetzari proposatzea dagozkien laguntzak ematea.

11. artikulua. Esleitzeko eskumena duen organoa.

Laguntzak emateko organo eskuduna Beasaingo Udaleko Alkatea da.

Laguntzak emateko ebazpen eta jakinarazpen epea bi hilabetekoa izango da, eskabidea aurkezten den egunetik zenbatzen hasita.

Ezarritako gehieneko epea amaitu eta ebazpenik eman eta jakinarazi ez bada, eskaera egin duten jabeen erkidegoek edo pertsonak ezetsitzat jo beharko dituzte eskabideak, administrazioaren isiltasunagatik.

12. artikulua. Dirulaguntza ordaintzea.

Ordainketa egingo da laguntza emateko ebazpena ematen denetik kontatzen hasita hilabeteko epean.

13. artikulua. Dirulaguntzaren bateragarritasuna.

Oinarri hauen xede diren dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste administrazio publiko batzuen dirulaguntzekin, betiere emandako guztizko zenbatekoak obraren benetako kostuaren % 100 gainditzen ez badu. Hala gertatuz gero, dagokion gehieneko mugaraino murriztuko da dirulaguntza.

14. artikulua. Datuen babesa

Eskatzaileen datuen tratamendua abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoa betez egingo da.

15. artikulua. Aplikatu beharreko araudia

Deialdi honetan aurreikusita ez dagoen guztirako, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea aplikatuko da.

16. artikulua. Ebazpena eta errekursoak

Deialdi hau administratiboa da, eta, beraz, Udalak ahalmena du hura interpretatzeko eta haren aplikaziotik edo ebazpenetik sor daitekeen edozein desberdintasun ebazteko.

Administrazio-errekurtsoa jar daiteke oinarri hauen aurka, Gipuzkoako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, oinarriak GAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Aldez aurretik, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman zuen organoari, hilabeteko epean, ebazpenak GAOn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

I. ERANSKINA

Dirulaguntza jasoko duten obren eta instalazioen ezaugarriak.

a) Etxebizitzetan kristalezko kanpo-arotzeria berritzea (leihoak eta leiho-atea).

Ohiko etxebizitzaren jabeentzako laguntza partikularra, dirulaguntza eskatzen den egunean bertan gutxienez urtebetez aurretik erroldatuta dagoela egiaztatu beharko duena. Nolanahi ere, etxebizitzak BEASANGO udalerrian kokatuta egon beharko du.

Diruz lagundu daitezkeen jarduketatzat hartuko dira kanpoko arotzeria beiratzatua ordezte, baldin eta berotutako esparruak edo gelak kanpoko ingurunetik bereizten badituzte efizientzia

energetiko handiko beste batzuekin, etxeko sektorean energia-kontsumoa murrizteko helburuarekin.

Instalatu beharreko kristalezko kanpoko arotzeria berriak honako ezaugarri hauek bete beharko ditu:

— CE marka izan beharko du.

— Arotzeria osoak $1,8 \text{ W/m}^2\text{K}$ -ko transmisio termikoko balioa edo txikiagoa izan beharko du.

— Bao guztiak etxebizitzaren kanpoaldeko itxituren parte izan beharko dira, eta ez dira diruz lagunduko etxebizitzaren barrualdeko itxituretan kokatutako leihoak.

— Eraikin bateko jarduketa partzialen kasuan, instalatu beharreko arotzeria berriak, ezaugarriei dagokienez (materialak, kolorea, piezakatzea, neurriak, etab.), eraikinaren gainerako zatiekin bat etorri beharko du.

b) Lehendik dauden galdara indibidualak ordezteak. Lehendik dauden galdara indibidualen ordeze (etxeko ur beroa eta/edo berokuntza), errendimendu handiko gas naturala, aerotermia, ekoizpen-sistema hibridoak edo energia berriztagarrien beste sistema batzuk erabiltzea.

Diruz lagundu daitezkeen jarduketatzat hartuko dira gaur egun instalatuta dauden galdara indibidualak energia-efizientzia handiko ekipotzat hartzen diren errendimendu handiko gas naturaleko beste galdara batzuekin ordezteak.

Instalazioek Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2008ko uztailaren 22ko Aginduan eta ondorengo aldaketetan xedatutakoa bete beharko dute. Agindu horren bidez, Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamenduari (EITE) buruzko arauak ematen dira.

Ez dira diruz lagunduko instalazioak dakartzan berritzeak, baldin eta honako murrizketa hauetakoren bat betetzen badute:

— 70 kW-etik gorako potentzia.

— Instalatu beharreko ekipoa ez du lehendik dagoen ekipo bat ordeztzen, ez eta instalazio kolektibo baten deszentralizaziotik datorrena ere.

— Ekipo berria ez izatea kondentsazio bidezko teknologiakoa.

c) Ur bero sanitarioa eguzki-energia termikoaren bidez ekoizteko sistema bat instalatzea.

Diruz lagundu daitezkeen jarduketatzat hartuko dira eguzki-instalazio berriak edo lehendik dauden instalazioen birgaitzeak, betiere eguzki-sorkuntzako potentzia ordezteak edo handitzeak badakarte eta lehendik dauden eraikinetan egiten badira.

Instalazioak honako ezaugarri hauek bete beharko ditu:

— Instalazioek eta ekipoek indarrean dagoen Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamenduan (EITE) ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

— Aplikatzekoa den indarreko araudian «eguzki-instalazio termikoari» buruz ematen den definizioaren arabera izango da.

— Eguzki-atzitzailleek Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioaren ziurtagiria izan beharko dute, eta $9 \text{ W/(m}^2\text{C)}$ baino gutxiagoko galeren koefiziente globala izango dute.

d) Berokuntzako eta UBS zentralizatuko sistema bat instalatzea, biomasa-galdararekin, aerotermiarekin, ekoizpen-sistema hibridoekin edo energia berriztagarrien beste sistema batzuekin, banakako kontsumoak kontrolatzeko banaketa barne.

Diruz lagundu ahal izango dira eraikinetan dauden energia konbentzionaleko instalazioak ordeztzen dituzten berokuntza-instalazioetan eta ur bero sanitarioa ekoizteko instalazioetan egindako jarduketak, eraikin bati baino gehiagori zerbitzua ematen dieten berokuntza-sare zentralizatueta inbertsioak barne. Kasu horretan, instalazioak kontsumo indibidualizatuen kontrola barne hartu beharko luke.

Instalazioak honako ezaugarri hauek bete beharko ditu:

* Instalazioek eta ekipoei indarrean dagoen Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamenduan (EITE) ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

* Biomasaren kasuan:

— Ekipoaren fabrikatzailearen akreditazio bat aurkeztuko du, urtaroko energia-efizientziaren eta erabiliko den erregairako emisioen baldintzak betetzen direla egiaztatzen duena. Akreditazio hori indarrean dagoen Ekodiseinuko Erregelamenduan zehaztutakoak bezain zorrotzak izango da (Batzordearen 2015eko apirilaren 28ko 2015/1189 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009/125/EE Zuzentaraua garatzen duena, erregai solidoko galdarek aplikatu beharreko diseinu ekologikoko betekizunei dagokienez).

— Galdaran erabilitako erregaiak A1 klasea (UNE-EN-ISO 17225-2 araua), UNE-EN-ISO 17225- 4 arauaren 1. klasea, 164003 arauaren A1 klasea edo 164004 arauaren A1 klasea betetzen duela egiaztatzen duen dokumentu-erregistro nahikoa mantenduko da. Erregistro hori bost urtez mantenduko da.

* Gainerako kasuetan:

— Eraikinaren efizientzia-ziurtagiria egiteko teknikari eskudunak erabilitako errendimendu-balioak honela zehaztu edo justifikatu beharko dira: CE marka; ekipamenduaren fitxa tekniko edo energia-etiketa; Eurovent ziurtagiria edo antzekoa; edo teknikariak sinatutako txosten bat, ziurtagirian erabilitako balioak jasotzen dituzten dokumentuak aurkezteko.

b.- UDALAZ GAINDIKO ADMINISTRAZIOEK ESKU HARTZEN DUTEN OBRAK EGITEKO UDAL-EKARPENAK. 2024HIBO0054

- Garingo saneamendua egiteko obrei biruzko 7. ziurtagiria.

Aho batez onartu da, Garingo saneamendua egiteko obren 7. ziurtagiria, 39.291,82 €koa (BEZ barne).

c.- OBRA-ZIURTAGIRIAK: SAN INAZIO ETA ESTEBAN LASA KALEAK BERRURBANIZATZEKO OBREI BURUZKO, 8. ZIURTAGIRIA. 2023PROB0014

Aho batez onartu da, "San Inazio eta Esteban Lasa kaleak berrurbanizatzeko proiektuko obrei buruzko" 8. obra-ziurtagiria, 77.879,52 €koa (BEZ barne).

5.- MOZIOA: PODEMOS-EK AURKEZTUTAKO MOZIOA: ISRAELGO ESTATUAREKIKO MERKATARITZA, GASTU MILITARRAREN IGOERA ETA ESPAINIAK IPAR ATLANTIKOKO ITUNEAN (NATO) JARRAITZEA GAITZESTEA. 2025IDBO0017

Alkate andreak alde zuzenetik hitza emanda, Aritz Corsitto Agirre jaunak, ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE, udal taldearen zinegotziak aurkeztutako mozioa irakurri baino lehen ondorengoa adierazi du:

"Aurtengo martxoaren 4an, Bruselak iragarri zuen EBk berrarmatzeko plan bat abiarazi zuela, lau urtean 800.000 milioi euro mobilizatzeko, Europa Berrarmatzeko Plana (Rearm Europe) izeneko.

Gastuaren igoera hori errazteko, Plana arau fiskalen suspentsioarekin batera dator; horrela, gobernuek Batzordearen zigorrari temerik gabe gasta dezakete, baldin eta BPGren % 3ko defizita gainditzen badute. Etete hori berrarmatze-plan honetara bideratutako gastuari bakarrik aplikatuko zaio, gastu sozialerako aplikatzen jarraitzen den bitartean, eta hori oso adierazgarria da. Bestalde, gastu militarren igoera hori salbuespenezko mekanismo baten bidez egingo da, parlamentuetan eztabaidatzea eta Europako herritarrei informazio argia eta zehatza ematea saihestuko duena.

Gastu militarren igoera ikaragarri hori justifikatzeko ematen ari diren argudioak, funtsean, Errusiak EBren segurtasunerako suposatzen dituen mehatxuetatik datoz.

Hala ere, aditu guztiek zalantzan jartzen dute Errusia benetako mehatxua izatea EBko herrialdeentzat

2000. urtean, Putinek Errusia EBn eta NATOn sartzea nahi zuela adierazi zuen, "Europar isolatuta ez geratzeko", eta bi eskaerak atzera bota zituzten. Horren ordez, AEBek eta NATOk Errusia militarki inguratzeari ekin zioten.

agintari europarrek balantze autokritikoa egin beharko dute azken urteetan gertatutako guztiaren inguruan eta bakoitzak Errusiaren eta Ukrainaren arteko gatazka honetan duen erantzukizunaren inguruan.

Gastu militarren igoera erraldoi horrek mahai gainean jartzen duen funtsezko gaietako bat da nondik kenduko den diru hori

Testuinguru nazionalan,

zerbitzu publikoak behar besteko kalitatearekin eman ahal izateko inbertsioak eskatzen ari diren, etxebizitza eskuratzeko krisi sakona dagoen, ia existitzen ez den zaintza-sistema bat dagoen,

ez dirudi egokiena armamentu-gastuaren igoera ikaragarri horren alde egitea.

Eta ez da sinesgarria etorkizuneko gastu soziala murriztuko ez duenik; Europako beste agintari batzuek eta NATOko idazkari nagusiak aitortzen duten bezala, gastu militarra "sakrifizioekin" handituko da herritarren aldetik.

Gastu militarra handitzeak industria militarri baino ez dio mesede egingo;

AEBetako militar-industria multzoaren kuxara joango da, arlo militarreko nazioarteko merkataritzaren % 42 kontrolatzen baitu. Gaur egun, Europak erosten dituen armen % 65 estatubatuarrek dira. Horrek gezurtatu egiten du europar berrarmatzearen beste argudioetako bat, hots, estatu batuen aurrean autonomia estrategikoa bilatzea.

Israel da gastu militarra handitzeaz baliatuko den beste estatu bat, mundu mailan armamentu-ekoizle garrantzitsuenetako bat baita.

Espainiak gutxienez 134 operazio egin ditu Israeli material militarra salerosteko, 2023ko urrian Israelek Palestinan genozidioa berriz hasi zuenetik.

Azken batean, militarismoak eta belizismoak indarkeria, dominazioa, giza eskubideen urraketak, gerrak, mina eta suntsipena sustatzen dituzte.

Arma gehiagok ez dakarte ez bakerik ez segurtasunik, gaur egun munduan dagoen arma kopuru ikaragarriak eta dauden gatazka armatu ugariak erakusten duten bezala. Gerra prestatzen badugu, gerra izango da hemen

Europar Batasunak bilatu behar duen segurtasuna eta autonomia ez da militarra, ekonomikoa eta politikoa baizik,

Espainiak eta Europak hezkuntzan, osasunean, ikerketan, berrikuntzan, azpiegituretan eta jasangarritasunean inbertitu behar dute, eta mundu osoan ekonomia zirkular eta eraginkor, gizatiar eta solidario baterako trantsizioa gidatu behar dute.

Espainian, CISEk 2024ko azaroan egindako inkesta batean, biztanleriaren % 14,2k baino ez zuen babesten Estatuak "askoz gehiago" gastatzea Defentsan.

Espainiak eta Europak bakearen aldeko apustua egin behar dute, eta alde anitzeko elkarriketaren eta adostasunen nazioarteko erreferentzia bihurtu behar dute."

Jarraian, mozioa irakurri du:

"MOZIOA-GAIA: ISRAELGO ESTATUAREKIKO MERKATARITZA, GASTU MILITARRAREN IGOERA ETA ESPAINIAK IPAR ATLANTIKOKO ITUNEAN (NATO) JARRAITZEA GAITZESTEA

Azkenaldian nazioarteko egoerak jasan duen bilakaera larria dela eta, ELKARREKIN PODEMOS Udal Taldeak hurrengo mozioa aurkezten du, Osoko Bilkurak Israelgo Estatuarekiko merkataritza, gastu militarren gehikuntza eta Espainiak Ipar Atlantikoko Tratatuan jarraitzea arbuizatzeari buruz duen iritzia azaltzeko.

1- Beasaingo Udalak konpromisoa hartzen du Israelgo Estatuarekin edo enpresa israeldarrekin giza eskubideen edo nazioarteko zuzenbidearen urraketan zuzenean edo zeharka parte hartzen duen edozein motatako lankidetzak-hitzarmen edo akordio deuseztatzeko eta ez sinatzeko.

2- Beasaingo Udalak Gobernu zentralari, Ministroen Kontseiluaren esparruan eta ahalik eta azkarren, Espainiaren eta Israelen artean armen eta erabilera bikoitzeko materialen esportazioak eta inportazioak berehala etetea onar dezala eskatzen dio.

3- Beasaingo Udalak Gobernu zentralari Nazioarteko Zuzenbideak gerrako krimen potentzialetarako eta Genozidioari buruzko Konbentzioaren ustezko urraketetarako aurreikusitako justizia mekanismoen aplikazioa susta dezala eskatzen dio.

4- Beasaingo Udalak Gobernu zentralari gastu militarrek izozteko eta helburu sozialetara bideratzeko eskatzen dio; etxebizitzak, eskolak eta ospitale duinak eraikitzea, garraio

publikoa indartzera, ikerketan eta energia berriztagarrietan inbertitzera eta gure planeta babestera bideratzeko eskatzen dio.

5- Beasaingo Udalak Gobernu zentralari Ipar Atlantikoko Tratatua salatzea erabaki dezala, eta salaketa horren berri Ameriketako Estatu Batuetako Gobernuari eman diezaiola eskatzen dio, tratatu horretako 13. artikuluan aurreikusitakoa betez, eta Espainiak NATOtik artikulua horretan aurreikusitako epean alde eginez.

6- Beasaingo Udalak Gobernu zentralari Espainiako erresumaren eta Amerikako Estatu Batuen arteko defentsarako lankidetzaz hitzarmena ez dela berrituko jakinaraz dezala eskatzen dio, AEBko indar armatuek Espainiako instalazio militarrek erabiltzea galaraziz.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzia hauek azaldu dira:

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Tras analizar la moción presentada por Elkarrekin-Podemos, decir que compartimos algunos puntos, como el primero que ya se trató en ruegos y preguntas del pleno anterior, en el que el Presidente de Gobierno ante la Comisión Europea dijo que una de las medidas para presionar a Israel sería finalizar los acuerdos económicos con Israel o suspender inmediatamente la importación y exportación de armas, que se acordó en Consejo de Ministros de 2023 y la actual propuesta de sumar y también de Podemos de suspender la exportación de armas.

Sin embargo, en la moción también se recoge la cuestión de los gastos. En un principio el gasto era de un 5% pero luego se acordó una subida del 2,1% que redundaría en perjuicio del ciudadano medio. La subida fue una propuesta de los técnicos del ejército al objeto de tener una defensa adecuada ante las amenazas a las que estamos expuestos. Nosotros estamos a favor de esa propuesta siempre que otro tipo de sectores como puede ser el de bienestar social no se vean afectadas por esa subida, y en consecuencia no estamos a favor de lo que propone la moción.

Sobre la salida del Estado de la OTAN, existe esa posibilidad pero una de las cosas que tiene que garantizar el Gobierno, a parte del bienestar, es la seguridad del ciudadano. Creemos que con esta alianza nos beneficiamos de posibles amenazas, no sólo nosotros, sino también otros estados. Por ello no estamos a favor de abandonar la OTAN.

En relación a los otros puntos no lo tenemos claro, pero también están surgiendo dudas, por ejemplo, sobre la utilización de las instalaciones de las fuerzas armadas. Esa es una situación delicada, incluso la propia ministra de defensa ha dicho que para poder garantizar una situación de paz, hay que reflexionar sobre la situación actual porque se ha comprobado que esas instalaciones se están utilizando menos. Nosotros asumimos en este sentido lo que digan los entendidos.

En conclusión, hay puntos de la moción con los que estamos a favor y con otros en contra. Nuestro voto será negativo.”

Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu): “Mozio irakurri ondoren konturatu gara mami handia eta gaurkotasuna duten eskaerak egiten direla eta, agian, udalaren aldetik begiratura, beste eskala baten daudenak. Ulertzen dugu, ordea, mozio hauek hainbat gai aztertu, interpretatu eta interpelatzeko tresnak ere badirela. Madriletik idatzitako mozioa dela iruditzen zaigu. Sarreran ere Aritz-ek testu inguru nazional hitza erabili du, hau da, oso adierazgarriak izan daitezkeenak, baina iruditzen zaigu Euskal Herrian ere badagoela zer eginga gai honen inguruan. Puntu gehienekin ados gaude, filosofiarekin ados gaude, nahiz eta ñabardura batzuk egon. Aurreko pleno batean EAJ eta sozialista taldeak aurkeztutako mozioarekiko alde azaldu ginen eta orain ere, Europak duen konplizitate horrekin eta Gazan

ematen ari den genozidioaren aurrean, pauso guztiak beharrezkoak direla iruditzen zaigu. Beraz, alde bozkatuko dugu”.

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Guk ere mozioa aztertu dugu eta Nazioarteko egoeraren bilakaera larria ikusita, hemen aztertzeko puntua dela irizten dugu, baina Hasierrek esan duen bezala proposatutako neurri batzuk udalaren eskumenetik kanpo daudela deritzogu.

Puntuz puntu joate arren esan, lehenengo puntuan Beasaingo udalari konpromiso bat hartzea eskatzen zaio eta kasu honetan eta gai honi lotuta, Beasaingo udalak zuhertasunez jokatu behar du. Gure eskumenen arabera, giza eskubideak errespetatzen dituen eta nazioarteko zuzenbidea betetzeko hornitzaile eta kolaboratzaile betetzeko konpromisoa hartu dezakegu eta giza eskubideak beteko ez balitu harremanak moztu ditzakegu, baina nazioarteko harremanak kudeatzea eta estatuen arteko hitzarmenak etetea Espainiako gobernu zentralari dagokio bere eskumenekoa delako eta ez udalarena. Udalak ezin du zuzenean horrelako inposaketarik egin kanpoko politika ikuspegi batetik.

Bigarren, hirugarren eta laugarren puntuei dagokienez, ulertzen dugu Espainiako gobernu-ministroari egiten zaizkion eskaerak direla eta horrekin bat egiten dugu. Gure kezka eta eskaera adieraz ditzakegula ulertzen dugu eta bai armen eta erabilera bikoitzeko materialaren esportazio eta inportazioei buruz eteteko eskatzearekin ados gaude. Baita ere nazioarteko zuzenbidea aplikatzearekin batera. Defentsarekin eta gastu militarra izozteko eskaerekin ere bat egiten dugu, gizarteren ongizate ikuspegitik eta gure helburuekin bat, etxebizitza, ospitale, garraio publikoa, ikerketa eta ingurumenaren babeserako arloetan inbertitu eta sustatu behar dela irizten dugu eta ez gastu militarretan. Baina gastu militarren erabakia aurrekontu orokorrak erabakitzen dute eta eskaera egin badezakegu ere Estatuari dagokio posizionatzea.

Azken bi puntuei dagokienez nazioarteko defentsa eta kanpo politikaren gaia dira. Aipatu da Tratuaren 13. artikulua, baina Beasaingo udalak ezin du zuzenean horrelako erabilirik hartu eta Estatu Batuetako gobernuari horrelako eskaera edo berririk eman. Zentzu horretan, kezka zilegi eta garrantzitsuak diren arren, proposamen asko gure eskumenetik at daudenez, guk ere aurka bozkatuko dugu.”

Aritz Corsitto Agirre jaunak (ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE): “Komunikabideetan irakurtzen duguna, batzuk esaten dutena, bai izan Espainiako alderdi sozialista edo NATOk arduraduna, azkenean badirudi gauza berdinak modu ezberdinean adierazten dutela. Zer ez den egia edo ez, ez dakit. Konpromiso hauek hitz hutsak dira. Inork ezin gaitu behartu hainbat gastatzera edo ez. Europar Batasunak Europako estatuei zigorrak jarri diezaieke, baina NATOk ezin du herrialde bat ekonomikoki zigortu. Ezin dugu jakin etorkizunean zenbat gastatuko den. Bihar gobernu aldaketa egongo balitz, agian beste modu batera ikusiko luke. Espainian aurkitzen diren baseen erabilera gutxiagoa dela!, beno, hori da ikusten duguna baina ezin dugu benetan jakin zein punturaino erabiltzen diren. Dakiguna da erabilera horiek guztiz debekatuko balira, ziur aski errazagoa izango litzateke hori aurrera ateratzea.

Egun batean azalduko didazue eskumenena. Ez dut ulertzen orain dela gutxi nola Europar Batasunari eskaerak egiten zaizkion, udalaren eskumenen barruan zegoelako eta orain aldiz, ez. Baina beno pixka bat espero genuena zen.”

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Sobre el tema de los gastos decir que no es una obligación, sino un compromiso que cada estado que compone la Alianza de la OTAN, asume. La cuestión es que ante la subida del 2,1 otros países de la Unión Europea también se han negado a la subida del 5% hasta analizar la situación en la que se encuentran. Ese es el conocimiento que tenemos.

Sobre el uso ilegal de las bases, se ha tenido conocimiento a posteriori. Hay un Acuerdo, del uso de nuestras bases por parte de Estado Unidos y se lleva un control del uso que se les da. Desde el Ministerio de Defensa se ha dicho que ha habido una desescalada de ese uso, aunque también se ha denunciado que con el apoyo de Estados Unidos a Israel, si se ha incrementado el uso. Pero como el Ministerio dice que el uso que se está realizando está dentro del Acuerdo, mientras no exista un incumplimiento no podemos tomar cartas en el asunto.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 6 (Beasaingo EH Bildu, ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE)

Aurkako botoak: 10 (EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak).

Abstentzioak: 0

Etorri gabea: 1 (EAJ-PNV)

Horren ondorioz, aurkako botoen kopurua aldekoena baino handiagoa denez, ez da onartu PODEMOS-ek aurkeztutako mozioa.

6.- BERRI EMATEA:

Ezagutzera eman dira ondorengo Ebazpenen zerrendak:

- 2025eko ekainaren 23tik uztailaren 20ra emandako Ebazpenak.
- 2025eko ekainaren 23tik uztailaren 20ra emandako Ebazpenak kontratu txikiei buruz.

7.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean honelakoak aurkeztu dira:

EGUTEGIRAKO ARGAZKI LEHIAKETA

Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak udal taldeko arduradunak galdetu du egutegiaren formatua aldatu daitekeen eta mahai gainean jartzekoa egin.

Alkate andreak (EAJ-PNV), esan du lantzeko moduko zerbait izan daitekeela baina paretan jartzeko egutegiak arrakasta handia dutela, atera bezain pronto agortzen direlako eta horiek ez lituzkeela ordezkatu.

Dena dela esan du, gaia lantzeko beste foru batzuk badaudela, hala nola bozeramaile taldea edo taldeen arteko harremanak.

MONTAI PRODUKZIOAK, S.L.

Elkarrekin Podemos Ezker Anitza / IU-Alianza Verde udal taldeko arduradunak adierazi du, Diario.es komunikabidetik informazioa iritsi zailea bere garaian MONTAI enpresak Beasaingo udalarekin izango kontratuei buruz Eusko Jaurlaritzako Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordeak uztailaren 11n emandako Ebazpenaren inguruan. Gai honi buruz zer esan daitekeen galdetu du.

Alkateak esan du eskatu zuen informazio zati bat, kontrataziorako plataformaren lik-en bidez eman zitzaion eta beste bat, modu zehatzagoan plataforman ez zegoelako.

Idazkariak, Alkateak hitza eman ondoren esan du, bere garaian Diario.es komunikabideak eskatutako informazioa epe barruan helarazi zitzaiola, baina erantzunarekin konforme ez

zegoenez gardentasunaren gainean jarduten Eusko Jaurlaritzako Batzordera jo zuela. Azken honek uztailaren 11n emandako Ebazpenak aurkeztutako erreklamazioa onartu egin du zati batean, baina oraindik aztertu ez denez, ez zaio erantzunik eman.

Aztertu bezain pronto, erantzungo dela eta horren berri udal korporazioari emango zaiola, adierazi du.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera hemeretziak eta bost minututan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek akta hau idatzi eta sinatu dut.